



Arartekoaren 2020R-1406-19 Ebazpena, 2020ko urriaren 22koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen zaio berriki dezala etxebizitzarako prestazio osagarri gisa jasotako prestazioen erreklamazioa, uste baitu kexagileak egiaztatu duela alokairu-errenta ordaindu duela eta etxebizitzaren baten errentari gisa eska dakizkikeen betebeharrak guztiak betetzen dituela.

Aurrekariak

1.-Herritar batek kexa bat aurkeztu zuen Arartekoaren esku-hartzea eskatzeko; ez zegoelako ados etxebizitzarako prestazio osagarri gisa bidegabe jasotako zenbait zenbaterako itzultzeko adierazpenarekin.

Zorra 2018/REV/081602 espedientea berrikusteko prozedura baten ondorioz sortu zen, eta, ondorioz, eten egin ziren diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eta etxebizitzarako prestazio osagarria. Diru-sarrerak bermatzeko errenta etetearen arrazoia bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak handitzea izan zen; hala ere, etxebizitzarako prestazio osagarria etetea ez zen izan diru-sarrerak bermatzeko errenta etetearen ondorio zuzena; aitzitik, errentamendu-kontratuan ezarritakoa eta azkenean alokairuaren ordainketak egiteko moduaren arteko ustezko kointzidentzia faltan oinarritzen da.

Ebazpen horretan bertan, Lanbidek aurreratu zuen etxebizitzarako prestazio osagarri gisa 1.000 euro itzultzeko betebeharrak aitortuko zela; erakunde autonomoaren arabera zenbaterako hori bidegabe jaso zen 2018ko abuztuan, irailean, urrian eta azaroan. Aurreratu zen bezala, 2019ko apirilaren 23ko ebazpenaren bidez, enplegu-erakunde autonomoak aipatutako zenbaterako itzultzeko betebeharrak adierazi zuen.

2019ko maiatzaren 16an, interesdunak aurreko ebazpenaren aurkako berraztertze errekurtsoa jarri zuen. Alokairu-kontratuan aldaketa bat egon zela alegatu zuen, ordaintzeko moduari eta berak ordaindu beharreko zenbaterako dagokienez. Errentaren zenbaterako hilean 300 eurotik gaur egungo 250 eurora jaitsi zen.

Gaiari eutsiz, kexagileak azaldutakoaren arabera, nahiz eta aurreko errentamendu-kontratuan, 2016ko urriaren 26an sinatutakoan eta 2018ko uztailera arte indarrean egon zen horretan, alokairuaren hileko zenbaterako





ordaintzeko modua banku-transferentziaren bidez egitea zela berariaz adierazten zen, 2018ko uztailaren 27an errentamendu kontratu berria sinatu zuen; bertan, alderdiek adostu zuten ordainketak banku-transferentziaren bidez edo jabearen egoitzan dirutan egin ahalko zirela.

Hori horrela, gaineratu du Lanbiden 2018ko ekaineko eta uztailleko banku-transferentziaren ordainagiriak aurkeztu zituela, 2018ko abuztuan, irailean, urrian eta azaroan dirutan egindako ordainketen ordainagiriez gain.

2.-Arestian azaldutakoa ikusita, Arartekoak lankidetzeta-eskaera bat bidali zion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari. Zehazki, honako puntu hauek oinarritzeko eskatu zen:

- Arrazoi horiengatik etxebizitzaren beharrarekin zerikusia duten gastuen kontzeptuan jasotako prestazioak itzuli behar direla aitortu da, baina interesdunak azaldutakoaren arabera, dirutan ordainketak egiteari buruzko ordainagiriak aurkeztu ditu eta hori alokairu-kontratuan ageri den modu bat da. Bestalde, kontuan hartu behar da errentamendu-kontratuei buruzko erregistroan inskribatzearekin zerikusia duen arrazoia ezin zaiola errentariari eskatu.
- Erakunde honek aurreko idatz-zatien bitartez helarazitako gogoetei buruzko zer iritzi duzun.
- Kexagileak 2019ko maiatzaren 16an jarritako errekurtsua noiz ebatziko den. Arren eskatzen dizut, ebazpena ematean, haren kopia bidal diezadazun.
- Kasuaren gaineko balorazioa egin ahal izateko garrantzitsutzat jotzen duzun bestelako edozein informazio edo gogoeta.

3.-Lanbideko zuzendari nagusiaren erantzuna aukerako berraztertze-errekurtsuaren ebazpenaren edukia errepikatzen mugatu zen:

“La determinación de los motivos y origen de esa deuda tiene lugar por medio de resolución de suspensión de la prestación de Renta de Garantía de Ingresos y de la Prestación Complementaria de Vivienda vinculada a la misma, dictada en fecha 19 de diciembre de 2018, dentro del procedimiento de revisión con número 2018/REV/081602, que fue notificado a la parte recurrente en fecha 14 de febrero de 2019. Contra esta resolución de extinción se presentó recurso de reposición en plazo, siendo el mismo desestimado por resolución con fecha 22 de marzo de





2019 (2019/REC/005290). Por ello, esta resolución no puede atacarse a través del presente recurso.

CUARTO.- La parte recurrente alega, en síntesis que lo firmado en el contrato de arrendamiento coincide con los importes que figuran en sus justificantes de pago del alquiler, y que el cambio en el importe se debe a un cambio del contrato. Aporta dos contratos de alquiler y justificantes de pago.

A pesar de que el recurso de reposición no es el momento hábil para valorar documentación que no se ha entregado durante el expediente, a pesar de tener oportunidad para ello en virtud del principio de racionalización y agilidad de los procedimientos administrativos y de las actividades materiales de gestión, que recoge en su artículo 3.1.d la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público, procedemos a analizar dichos documentos.

Si bien los documentos aportados recogen el pago de la parte que le corresponde al recurrente como coarrendatario, según lo que establece el contrato de arrendamiento, hay que tener en cuenta una consideración adicional que el recurrente no menciona: habiéndose firmado el contrato en julio de 2018, no consta que se depositase la fianza del mismo ante la Delegación Territorial de Vivienda del Gobierno Vasco hasta el 6 de noviembre de 2018.

Lanbide establece en su criterio 2.1, que todos los contratos de arrendamiento que se entreguen en Lanbide, han de haberse inscrito en el Registro de Contratos de Arrendamiento de Fincas Urbanas. Dado que el presente contrato no fue inscrito hasta noviembre de 2018, los justificantes anteriores a esta mensualidad no pueden tenerse en cuenta, ya que no estando inscrito el contrato de arrendamiento durante ese periodo, no se puede dar validez a los justificantes originados en base al mismo durante el periodo de no inscripción. Por ello, en los meses de agosto a octubre de 2018, no queda suficientemente acreditado el gasto específico que recoge el artículo 4 del Decreto 2/2010.

Dado que los importes reclamados procedentes de la Renta de Garantía de Ingresos no se discuten, procede la estimación parcial del presente recurso, reduciendo la cuantía del reintegro recurrido por la parte justificada de la Prestación Complementaria de Vivienda del mes de noviembre de 2018, estableciéndose la nueva cuantía del mismo en 1.059,60 euros. Dado que no se ha reintegrado cuantía alguna dentro del procedimiento recurrido, no procede reconocer atrasos.”





Laburbilduz, erakunde autonomoak partzialki onartu zuen kexagilearen errekurtsua, eta itzuli beharreko zenbatekoa aldatu zuen, hasierako 1.309,60 eurotik 1.059,60 eurora, uste baitzuen ez zuela behar bezala justifikatu etxebizitzarako prestazio osagarria abuztuan, irailean eta urrian erabili izana, baina bai azaroan.

4.-Hala ere, zenbait gogoeta aintzat hartuta —a posteriori zehaztuko direnak, testua errepikakorra izan ez dadin—, erakunde honek komenigarritzat jo zuen ikertzen jarraitzea ea zergatik ez zen baietsi erabat kexagilearen errekurtsua.

Hori horrela, bigarren informazio-eskaera bat egin zitzaion enplegu-erakunde autonomoari, bi puntu argitzeko eskatuz:

- *Arrazoi horiengatik, hain zuzen, ez da baliorik gabe utzi etxebizitzarako prestazio osagarriaren zenbateko guztiak itzultzeko prozedura, baldin eta kexagileak berrikusi diren hilabete guztietako errentaren hilekoa ordaindu duela egiaztatu badu.*
- *Arrazoi horiek direla eta, honako honi eutsi zaio: kexagileak ez ditu betebeharrak bete; izan ere, ez ditu fidantza Eusko Jaurlaritzan ordaindu izana eta inskripzioa egiaztatu, eta sektore-araudiaren arabera, betebeharrak horiek errentatzaileari eska dakizkioke.*

5.-Eskaera horri erantzunez, Lanbideko zuzendari nagusiak txosten bat bidali zion Arartekoari, eta, bertan, bere erabakiaren oinarri gisa adierazi zuen kexagileak ez zuela eskatu urte bereko azarora arte errentamendu-kontratu berria inskribatzeko —2018ko uztailan sinatu zen—. Horregatik, Enpleguko erakunde autonomoak ondorioztatu zuen aurreko hilabeteetako egiaztagiri guztiak —2018ko abuztua, iraila eta urria— ez direla baliozkoak eta ez dela justifikatuta geratzen etxebizitzarako prestazio osagarria Etxebizitzarako Prestazio Osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren 4. artikuluan (2/2010 Dekretua, aurrerantzean) jasotako gastu espezifikora bideratu dela.

Gogoetak

1.-Arartekoak ontzat jo du Lanbidek harturiko jarrera, berraztertze-errekurtsuan aurkeztutako dokumentazioa kontuan hartu izana; espedientea izapidetu bitartean aurkeztu ez bazen ere. Lanbidek administrazio-prozeduren eta kudeaketa-jarduera materialen arrazionalizazio- eta bizkortasun-printzipioan





oinarritzen du erabaki hori, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 3.1.d artikuluan jasotzen da.

Hain zuzen ere, 40/2015 Legearen 3. artikuluan zehazten dira zeintzuk diren administrazioak bete behar dituen printzipioak administraturiko pertsonekin dituen harremanetan. Hortaz:

3. artikulua. *Printzipio orokorrak.*

1. Administrazio publikoek objektibotasunez egiten dute lan interes orokorraren alde. Halaber, efikazia, hierarkia, deszentralizazio, deskontzentrazio eta koordinazioaren printzipioei begira dihardute, erabat errespetatuta Konstituzioa, legeak eta zuzenbidea.

Beren jarduketan eta harremanetan honako printzipio hauek zaindu beharko dituzte: (...)

d) Administrazio-prozeduren eta kudeaketako jarduera materialen arrazionalizazioa eta bizkortasuna. (...)

Ilido beretik, Auzitegi Gorenak berak, 684/2017 Epaian —2017-04-20koa, Administrazioarekiko Auzien Salako 2. atalarena—, honako hau adierazi zuen:

“Como se ve, la doctrina del Tribunal Supremo en esta materia es clara: sí cabe en sede de revisión admitir documentación no aportada en sede de gestión. En este punto es preciso recordar que si en vía judicial está plenamente aceptada -según dispone el precitado artículo 56.3 de la LJCA- la posibilidad de aportar nuevas pruebas no presentadas en el procedimiento de gestión, ni en la vía administrativa o económico-administrativa previa, que deben ser tenidas en cuenta a la hora de resolver, con mayor motivo debe aceptarse y ser tenida en cuenta tal documentación cuando se entrega al mismo órgano que la requirió en un primer momento. Ningún sentido tendría que un mismo documento fuese tenido en cuenta en la vía judicial y no en sede de recurso de reposición.”

Halaber, jarrera bera defendatzen da 2018ko irailaren 10eko 1362/2018 Epaian (1246/2017 Errek.) —Administrazioarekiko Auzien Hirugarren Salako 2. atalarena—, adierazten duenean errekursoaren berrikuspen-izaerak ez duela eragozten egoitza judizialean proposatzea eta baloratzea hasieran ondorioztatutako uzia egiaztatzeko administrazioari aurkeztu ez zitzaizkion dokumentuak.





Epaiak zehazten duenez, neurri gabeko, iruzurrezko edo asmo txarreko jarduketak saihesteko zuhurtziaz jokatu behar da beti, eta, kasu horretan, ez zaio egotzi erakunde kexagileari iruzurrezko jokabiderik txikiena ere; izan ere, gehienez ere, egozten zaion gauza bakarra da aldez aurreko errekerimenduak betetzeko orduan nolabaiteko utzikeria, atzerapena edo zabarkeria egon dela.

“... consideramos posible, en efecto, que quien deduce una reclamación económico-administrativa presente ante los tribunales económico-administrativos aquellas pruebas que no aportó ante los órganos de gestión tributaria que sean relevantes para dar respuesta a la pretensión ejercitada, sin que el órgano de revisión pueda dejar de valorar -al adoptar su resolución- tales elementos probatorios. Todo ello, con una única excepción: que la actitud del interesado haya de reputarse abusiva o maliciosa y así se constate debida y justificadamente en el expediente.

La respuesta expresada es, obvio es decirlo, resultado de la configuración legal del procedimiento económico-administrativo y de nuestra jurisprudencia (que ahora confirmamos) en relación con la extensión y límites de la revisión, tanto en sede económico-administrativa, como en vía jurisdiccional, supuestos ambos en los que las facultades de los órganos competentes (administrativos en el primer caso, judiciales en el segundo) deben cabalmente enderezarse a la plena satisfacción de las pretensiones ejercitadas mediante la adopción de una resolución ajustada a Derecho en la que se aborden todas las cuestiones -fácticas y jurídicas- que resulten necesarias para llegar a aquella decisión.”

2.-Aztertzen diren alderdi materialei dagokienez, aplikatzekoa den araudiak etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzen die ohiko etxebizitzaren edo bizitokiaren aldizkako gastuei aurre egin behar dieten pertsoneri, eta haien betebeharren artean ezartzen du prestazioa gastu hori ordaintzeko erabiltzea, bai eta betebehari hori betetzen dela egiaztatzen duten agiriak administrazioari aurkeztea ere.

Etxebizitzaren prestazio osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren (aurrerantzean, 2/2010 Dekretua) 4. artikulua honako hau ezartzen du:





- *"etxebizitzarekin loturiko premiaztat hartuko dira etxebizitzaren edo ohiko bizitokiaren alokairu-gastuak, edozein modalitatetan, hots, errentamendua, azpierrementamendua, baterako alokairua, ostatu hartzea eta gelen alokairua."*

Etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular izateko, etxebizitza-gastuei aurre egiteko beharra egiaztatu behar da —etxebizitzarako prestazio osagarriari buruzko 2/2010 Dekretuaren 5.1 b) artikulua— :

- *"Honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak izan daitezke Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriaren titularrak:
(...)
b) Titularrak 4. artikuluan bilduriko ohiko etxebizitza edo bizikotiko aldizkako gastuei erantzun behar izatea, eta ohiko helbidea duen udalerriko¹ udal gizarte-zerbitzuek egiaztatu beharko dute premia hori."*

lido beretik, 2/2010 Dekretuaren 7. artikuluan zehazten da etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrek, besteak beste, betebeharrak hau dutela:

"a) Prestazioa zein helburutarako eman den, horrexetarako baino ez erabiltzea."

Kasu honetan, Lanbideko zuzendari nagusiak 1.059,60 euro itzultzeko betebeharra deklaratzeko ebatzi du, uste baitu interesdunak aurkeztutako frogaelementuak ez direla nahikoak jasotako prestazioak etxebizitzaren alokairu-gastuari aurre egiteko erabili direla egiaztatzen. Hasiera batean, enplegu-erakunde autonomoak zioen alokairu-kontratuan alokairua ordaintzeko jasotzen zen moduari buruzko informazioa ez zetozeela bat kontratuaren benetako ordainketekin; hala ere, errekurtsoaren ebazpenean ez zen arrazoi hori adierazten, baizik eta errentamendu-kontratua ez zegoela inskribatuta Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroan, eta horrek, erakunde autonomoaren arabera, dagoeneko aipatu den urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren 4. artikulua ez betetzea dakar berekin.

Azaldutakoa gorabehera, Arartekoaren iritziz, etxebizitzarako prestazio osagarria bete-betean etxearen hileko errenta ordaintzeko erabili duela egiaztatu du kexagileak, bai eta etxebizitzarako prestazio osagarria erregulatzen duen araudian onartutako bitartekoak erabiliz egiaztatu ere. Aurrekariaren atalean zehaztu den bezala, kexagileak azaldu zuen 2018ko uztailaren beste

¹ Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko Legea aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legearen ondoren, Lanbide da etxebizitzarako prestazio osagarria kudeatzen duen erakundea.



errentamendu-kontratu bat sinatu zuela eta, bertan, ordainketak banku-transferentzia bidez zein eskudirutan egin zitezkeela adierazi zuen. Hori horrela, Lanbiden 2018ko ekaineko eta uztailleko banku-transferentziaren ordainagiriak aurkeztu zituen, abuztuan, irailean, urrian eta azaroan dirutan egindako ordainketen ordainagiriez gain.

Ildo horretan, 2/2010 Dekretuaren 19. artikuluan, Lanbideko zuzendari nagusiak bere erantzunean aipatutakoak, honako hau ezartzen du berariaz:

"Emate-ebazpenari dagokionez, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriaren titularrak sei hilean behin ohiko etxebizitzaren edo bizitokiaren alokairu-gastuen frogagiriak udalerriko oinarrizko gizarte-zerbitzuari aurkeztu beharra ezarriko da. Frogagiri horiek ordainagiri pribatuak, fakturak, edo banku-ordainketako frogagiriak izan daitezke. (...)"²

Kexagileak epe eta modu egokian aurkeztu ditu egiaztagiri guztiak, bai bankuko egiaztagiriak, bai eskudirutan ordaintzekoak; beraz, erakunde honen iritziz, ezin da baieztatu 19. artikuluko betebeharra bete ez denik; era berean, ezin da ulertu inguruabar horrek lekurik ez duenik araudi bereko 4. artikuluan jasotzen den "etxebizitzarekin lotutako beharren" definizioan.

Arartekoaren iritziz, prestazioen titularrak ematen zituen alokairu-ordainagiriak baliozkoak ez zirela edo iruzurrezkoak izan zitezkeela pentsatzera zeraman zantzen bat antzeman bazen, balizko jarduera bat izan zitekeen kasuan kasuko agintarien aurrean salaketa bat egitea, eta ezin izango zen zalantzan jarri alokairu-ordainagiri baten baliozkotasuna banku-transferentzia bidez egin ez izanagatik.

Kontuan izan azaroaren 24ko 29/1994 Legearen, Hiri errentamenduari buruzkoaren, 17. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz:

"3. El pago se efectuará en el lugar y por el procedimiento que acuerden las partes o, en su defecto, en metálico y en la vivienda arrendada.

4. El arrendador queda obligado a entregar al arrendatario recibo del pago, salvo que se hubiera pactado que éste se realice mediante procedimientos

² Arartekoak azpimarratua



que acrediten el efectivo cumplimiento de la obligación de pago por el arrendatario. (...)"

Eskudirutan ordaintzea bitarteko baliagarria dela Zuzenbidean etxebizitzaren alokairu-errenta ordaintzeko betebeharra betetzeko.

3.-Errentamendu-kontratuak inskribatzeko betebeharrari buruz, Arartekoak beste batzuetan ere eman du iritzia³, eta azpimarratu du betebeharrari ez dela ikusten diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria arautzen dituen araudian.

Fidantzak jartzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-finken errentamendu-kontratuaren erregistroari buruzko martxoaren 15eko 42/2016 Dekretuak (aurrerantzean, 42/2016 Dekretua) errentamendu-kontratua inskribatzea errentatzailearen betebeharrak dela ezartzen du.

Zehazki, 42/2016 Dekretuaren hitzaurreak honako hau dio:

- *"Fidantza jartzeko eginbeharra eta hiri-finken errentamendu-kontratua Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Errentamendu Kontratuaren Erregistroan inskribatzekoa bi betebeharrak ezberdin dira, biak alderdi errentatzailearen eginbeharrak badira ere."⁴*

Era berean, 42/2016 Dekretuko 27.1. artikuluan haxe ezartzen da:

- *"Kontratuaren inskripzioa alderdi errentatzaileak eskatuta gauzatuko da (...)"⁵*

Azken alderdi horri dagokionez, erakunde honek adierazi nahi du gizarteratzeko eta diru sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak eta 2/2010 Dekretuak, ez dutela aurreikusten eskubidearen titularrek, etxebizitzarako prestazio osagarri gisa jasotako zenbatekoak etxebizitzaren alokairua ordaintzeko erabili dituztela egiaztatzeko betebeharra betetze aldera, beren errentamendu-kontratuak Eusko Jaurlaritzaren erregistroan inskribatu behar dituztenik ondorio horietarako.

³ Arartekoaren 2018R-1648-17 Ebazpena, 2018ko maiatzaren 24koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio baliogabetu dezala herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzetarako prestazio osagarria ukatu zizkion ebazpena.

Hemen eskuragarri: https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4536_1.pdf

^{4 5} Arartekoak azpimarratua



Beraz, Lanbidek hori babesten duen araudi-xedapenik gabeko irizpide bat aplikatzeak Konstituzioaren 9.3 artikuluan jasotako segurtasun juridikoko printzipioari eragiten dio.

- 4.-Laburbilduz, Arartekoak ez du ikusten diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria arautzen dituen araudiak ez 42/2016 Dekretuak ez dutela eskatzen kexagileak kontratua Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroan inskriba dezan, neurri handi batean, betebehar hori higiezinaren errentatzaileari eska dakiokelako.

Erakunde honen iritziz, behar bezala egiaztatuta geratu da kexagileak etxebizitzarako prestazio osagarri gisa jasotako zenbatekoak etxebizitza-gastuak ordaintzeko erabili dituela, baina bere kontratua hilabete batzuetan Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroan erregistratuta egon ez izanak ez du baieztapen hori indargabetzen.

Laburbilduz, erakunde honen iritziz, Lanbidek etxebizitzarako prestazio osagarri gisa 1.059,60 euro erreklamatzeko hartutako erabakiak ez du lege-babesik.

Itzultzeko prozedura honen aurretik diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea etetea Zuzenbidearen arabera izan da; izan ere, bizikidetzaren unitateak diru-sarrera nahikoa zituen 2018ko urrian enplegurako pizgarrien 3 urteko aldia gainditu zenetik. Hala, etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea eten egin behar zen, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzearekin lotuta zegoelako.

Hala ere, horrek ez du eragozten adierazte etxebizitzarako prestazio osagarri gisa ordaindutako (eteteke beste arrazoiaren ondorioz) prestazioen erreklamazioa 2018ko ekainetik azarora bitartean, alokairuaren ordainketa egiaztatzeko moduagatik zein errentamendu-kontratua Hiri Finken Errentamenduen Kontratuen Erregistroan inskribatuta ez zegoelako, ezin duela erakunde honek jaso etxebizitzarako prestazio osagarria arautzen duen araudian ezarritako aurreikuspenekin bat ez datorrelako.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:





GOMENDIOA

Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen dio berriki dezala alokairuko errenta ordaindu izana eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular gisa inolako betebeharririk bete ez izana egiaztatzeagatik jasotako prestazioen erreklamazioa.

